



ZARAUZKO UDALA

## 8. ORDENANTZA, ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

### ERANSKINA

#### a) UDAL EUSKALTEGIA

<b>Tarifak 2023-2024 ikasturtea</b>	<b>€</b>
Aurrez aurreko ikastaroa/orduko	1,08
Jardun biko zerbitzua / orduko	1,90
Autoikaskuntza zerbitzua/orduko	2,70
C2 1 ikastaroa on-line/ orduko	3,50
C2 2 ikastaroa on-line/ orduko	1,90
Udako autoikaskuntza zerbitzua/ orduko	2,15
Erretiratuentzako ikastaroak	0,00

#### **Ordaintzeko arauak:**

Inskripzio-orria betetzearekin batera, ikasleak helbideratze-orria beteko du. Ikastaroan izena ematen denean sortzen da horri dagokion prezio publikoa, eta epe batean edo hirutan ordaindu ahal izango da: epe bakarrean, urriko lehen hamabostaldian; hiru epetan, urriko, urtarrileko eta martxoko lehen hamabostaldian, bakoitzean herena.

Ikaslea aurrez aurreko taldean hasi eta autoikaskuntzara pasatzen bada, honela kobratuko zaio: aurrez aurrez egin dituen hilabeteak (aldaketa egiten den hilabetea barne) modalitate horri dagokion prezioarekin eta gainerakoak (aldaketa egin eta hurrengo hilabeteetik aurrera) autoikaskuntzako prezioarekin; hau da, proportzionalki ordaindu beharko ditu aurrez aurre eta autoikaskuntzan egin dituen hilabeteak.

#### **Bajak emateko prozedura**

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat baldin badago, honela ordainduko dira kuotak:

- Itxaron-zerrendan ikasleak baldin badaude, baja eman duena ordezkatu egingo da, eta ez du kuota gehiago ordainduko.
- Itxaron-zerrendan ikaslerik ez badago, baja eman duen ikasleak ikasturte osoa ordaindu beharko du.

Ikastaroaren prezioaren zenbatekoa ez da itzuliko.